

BAKARRIK DAUDEN EMAKUME HAURDUNENTZAKO EDO SEME-ALABAK DITUZTENENTZAKO HARRERA-ZENTROAK

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Gizarte bazterketa egoeran dagoen pertsona > Aldi baterako edo egonaldi luzeko ostatu zerbitzua

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Bakarrik dauden **emakumeak**, haurdunak eta/edo seme-alabak dituztenak, **bazterketan daudenak eta laguntza-sarerik ez dutenak.**

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Bazterketa edo babesgabetasun egoeran dagoen emakumea.

18 urte edo gehiago (edo adingabe emantzipatua).

Haurdun edo **seme-alabekin**.

Zertan datza?

Harrera-zentroak, egonaldi ertainekoak, bakarrik, haurdun edo seme-alabak dituzten emakumeei arreta, babesa eta ostatua ematen dietenak, bai eta bazterketa-egoera kritikoetan eta gizarte- eta familia-sarerik gabe daudenei ere ([2.4.5 fitxa](#)). Zentro horiek intentsitate ertain eta handiko gizarte- eta hezkuntza-laguntza eta laguntza psikosoziala eskaintzen dute, genero- eta ahalduntze-ikuspegitik. Helburua emakume horiei bititoki eta ingurune seguru bat eskaintzea, bai eta laguntza

intentsibo bat eskaintzea ere, autoestimua eta bizitza autonomoa lortzeko trebetasunak berreskuratzea da. Helburu horiek lortzeko, informazio-, orientazio-, balorazio-, diagnosi-, hezkuntza-zerbitzuak eta esku-hartze psikosozialak eskaintzen dira. Otordu-zerbitzua, garbitegia eta eremu komunak garbiketa barne har ditzakete.

Norentzat?

Bakarrik dauden **emakume** haurdunak edo baztertzeko arrisku larrian dauden eta beren kargura seme-alaba adingabeak dituztenak, **baliabiderik eta laguntza-sarerik ez dutenak**. Emakume erabiltzaileen mende dauden pertsonak ere erabil dezakete zerbitzua.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Bakarrik haurdun dagoen **emakumea** edo bere kargura adingabeko seme-alabak dituenak, **bazterkeria egoeran dagoena eta laguntza sarerik ez duena**.

18 urte edo gehiago izatea (edo adingabe emantzipatua izatea).

Iraupen ertaineko laguntza intentsiboa, integrala eta espezializatua behar izatea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Bakarrik dauden emakume haurdunentzako edo seme-alabak dituztenentzako egonaldi ertaineko harrera Araban](#)
- [Bakarrik dauden emakume haurdunentzako edo seme-alabak dituztenentzako egonaldi ertaineko harrera Bizkaian](#)
- [Bakarrik dauden emakume haurdunentzako edo seme-alabak dituztenentzako egonaldi ertaineko harrera Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)